

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

#### HAU ZIURTATZEN DU:

2024ko abenduaren 18ko bilera arruntean (4/24 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**14. gaia.-** GUFeko zentroetarako erizaintzako gainbegiraleen eta gainbegirale koordinatzaileen lanpostuak betetzeko lehiaketa espezifiko onartzea.

«**Lehenengoa.-** Eranskinean azaltzen diren erizaintzako gainbegirale eta gainbegirale/koordinatzailearen lanpostuak betetzeko berariazko merezimendu-lehiaketaren deialdia onartzea.

**Bigarrena.-** Deialdiaren oinarriak onartzea, erabaki honen eranskin gisa jaso direnak.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFeren web-orrian argitaratzea. Argitalpen hori batzorde honetan bertan egindako lanpostu-eraldaketak egin eta gero egingo da.

**Laugarrena.-** GUFeko gerente jaunari baimena ematea deialdi hau garatzeko beharrezkoak diren egintza guztiak gauzatzeko behar bezala ebatzi arte.

**Bosgarrena.-** Erabaki honen aurka errekurtsua aurkez daiteke Lan Arloko Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke Batzorde honetan, hilabeteko (1) epean».

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA 2024-12-27  
GUF-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

